

IRANTZU YALDEBERE

06.14.2022 - 08.28.2022

Rekalde Aretoak Irantzu Yaldebereren erakusketa aurkezten du, **barriek** programaren barruan; programa horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren arte plastiko eta bisuale-tako bekez gozatu duten artistek egindako lanen hautaketa bat erakusten du.

Violets for your fur. Bioletak zure azalerako. Edo, laburrago esanda, Violets.

Violets, zenbait pertsonaren oroitzapena da, mito bilakatua eta argitaratua. Era be-rean, gorde nahi ditudan pertsona eta gauzen argazkiak ere badira. Deliberoa hartu dut egunero egin ohi dudanari (argazkiak egiteari) jendaurreko erantzuna emateko eta gertakizunaren erdigunean kokatzeko. Maiz jarduten dut pentsaketan nola bizi nintekeen hobeto, eta horrek berez dakar uztartzea, ezagutzea eta aldatzea.

Zinez ederra da pentsatzea jende batzuek beste batzuei lagun egiten dietela eta, aldi berean, elkarren artean nire tolesak partekatzen dituztela ikustea: Douglas Sir-ken dramak, losuren azken hitzak, Anohni *If It Be Your Will* kantuan ari dela, Pierre Bonnarden *Nu à contre-jour*, Lukrezia, Maiakovski-Lilia-Rodtxenko, Ponpeia, publi-zitatea, kolore osagarriak, Greer Lanktonen panpinak, Jeanne Moreau eta Brigitte Bardot edo PJ Harvey eta Nick Cave, komunitatean bizitzea, nire ahizpa, Ana Laura Aláezen identitate bilaketak, Fassbinderren mendekotasunak... Oroitzen, sentitzen, irakurtzen eta ikusten dudan guztia. Begirada, funtsean, beste distantzia bat baita...

Irantzu Yaldebere (Bilbo, 1994) Bilbon bizi da eta bertan lan egiten du. Jon Mikel Euba eta Itziar Okarizek zuzendu zuten artistentzako tailerrean parte hartu zuen 2018an. Bere lanak zenbait tokitan izan dira erakusgai; leku horien artean daude, besteak beste, Okela Sormen Lantegia (2016), Bizkaiko Batzar Nagusiak (2018) eta Aire Galeria (2019). Bestelako lanik ere egin du. Eremuak#6 aldizkariko kontra-za-la marraztu zuen (2019) eta Feministaldia kultura feminista jaialdiaren baitako *Hiru fragmentu. Hiru begirada* mintzaldiko partaide izan zen (2020). 2022an Bartzelo-nako Eremuak-Halfhouse egonaldiako hautatua izan zen.



rekalde

Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao
Tel. +34 94 406 85 32

www.salarekalde.bizkaia.net

Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30

Igande eta jai egunetan: 10 - 14

Astelehenetan itxita

Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h

Domingos y festivos: 10 - 14 h

Lunes cerrado

Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h

Sundays and holidays: 10 - 14 h

Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free

